ZERBITZUAK PROZEDURA
IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO
ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA

I. ALDERDI OROKORRAK ETA KONTRATUAREN KONFIGURAZIOA

1. KONTRATUAREN XEDEA

1.1 Orri honen arabera egiten den kontratuak Zeanuriko Udaleko arkitekto aholkulariaren zerbitzuak kontratatzea izango du helburu, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 25.2. artikuluko a) idatz-zatiaren arabera Zeanuriko Udalak hirigintzaren arloan daukan eskumena, kontratu-izaera izango duen espedientean agertzen diren agiri teknikoak eta orri hau kontuan hartuta.

1.2 Honako hauxe da kontratu honen helburuarekin bat etorri eta Europako Batzordeak 2007ko azaroaren 28an emandako 213/2008 Araudian (EE) azaldutako CPV nomenklaturako kodeketa:

71200000-0: Arkitekturako zerbitzuak eta loturapeko zerbitzuak
71210000-3: Arkitekturako aholkularitza-zerbitzuak
71410000-5: Hirigintzako zerbitzuak

Prestazio horiek, hain zuzen ere, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeko Testu Bateratua (aurrerantzean, SPKLTB) onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko II. eranskineko 12. kategorian azaltzen dira.

1.3 Hona hemen pertsona edo enpresa esleipendunak garatu beharreko eginkizunak:

- Plan Orokorraren edo Plan Orokorren aldaketa puntualen berri ematea.
- Plan partzialei, xehetasun-azterketei eta urbanizazio-proiektuei buruzko txostenak eta irizpenak ematea.
- Bere eginkizunekin lotutako gaiei eta, batez ere, lizentziei eta hirigintzako era guztietako espedienteei buruzko informazioa eta irizpena ematea.
- Hirigintzako lizentziei buruzko espediente guztien txostena egitea, baita egin beharreko obren zein proiektuen hasierako eta amaierako balioespena ere.
- Egin beharreko obrak amaitzen direnean, behar den moduko kontrola eta jarraipena egitea. Horretarako, egindako obraren benetako balioa egiaztatzen duen ziurtagiria egitea edo balioespen hori teknikari zuzendariak obraren amaierari buruz egindako azken ziurtagirian egiaztatzea, emandako lizentzian sortu beharreko eskubideak behin betiko likidatu ahal izateko.
- Lehenengo okupaziorako lizentziak emateko txostenak egitea.
- Behar den moduko kontrola eta jarraipena egitea, eraikin, urbanizazio, lursail edo instalazioetako segurtasunari, osasungarritasunari eta apaingarri publikoei eusteko.
- Zehapen-espedienteetan, txosten teknikoak eta hirigintzako txostenak egitea.
- Udal-mugarte honetako finka guztiei buruzko hirigintza-zedulak egitea.
- Lerrokaduren eta sestren akta egitea.
- Udal-obretako aurreproiektuak eta proiektuak informatzea.
- Kontratazio Mahaiak eskatutako txosten teknikoak egitea.
- Halaxe eskatuz gero, kontratazio-mahaietan parte hartzea.

- Obrako zuzendaritza esleitu ez zaionean, udal-obretako ziurtagiriei buruzko txosten teknikoak egitea.
- Obrako zuzendaritza esleitu ez zaionean, zuinketaren egiaztapenean eta udal-obren onarpenean parte hartzea.
- Obrako zuzendaritza esleitu ez zaionean, udal-obren betearazpenaren kontrola zein jarraipena egitea eta horri buruzko informazioa ematea.
- Kontrataziorako espedienteak izapidetzean beharrezkoak diren txosten teknikoak egitea, baita kontratuak aldatzeko eta suntsiarazteko txostenak ere.
- Gordailatutako bermeen itzulketaren jatorriari buruzko txostenak egitea.
- Udalean bertan desjabetzeko izapidetutako espedienteei buruzko txostenak egitea.
- Memoria balioetsiak egitea.
- Aurrekontuak egitea.
- Udalak dirulaguntzak eskatu ditzan beharrezkoak diren agiri teknikoak egitea.
- Kontrataziorako espedientearen izapideak eragozten dituzten larrialdi edo premiazko egoeretan, betiere, udalak berak halaxe eskatu badio, beharrezko proiektu teknikoak egitea eta zuzendaritza fakultatiboaz arduratzea.
- Udalak eskatutako ondasun-balioespenak egitea.
- Hirigintzako plangintzarako tresnekin, hirigintzako kudeaketarako tresnekin eta hirigintzako hitzarmenekin zerikusia duten txostenak egitea.
- Legeria sektorialak edo beste administrazio edo organismo publiko edo judizial batzuek eskatutako txosten teknikoak edo hirigintzako txostenak egitea.
- Udal-zuzendaritza teknikorako esleitzen zaizkion eginkizunak bere gain hartzea, zerbitzuen euren antolamenduan ezarritako hirigintzako eta arkitekturako teknikaren faktoreak kontuan hartuta.
- Alkatetzari eta udaleko agintariei zein funtzionarioei organismo publikoetara egindako bisitaldietan laguntzea eta aholkularitza ematea.
- Udal-bulegoetan bertan eta, gutxienez, bi astean behin (orrian zehaztutako baldintzetan), udalari berari informazioa ematea, udal-organoetan parte hartzeko edo auzokideei jakinarazteko.
- Plangintzari, jarduerei, lizentziei... buruzko galderei erantzutea.
- Halaxe eskatzen diotenean, honako hauexetara aholkulari moduan joatea: kide anitzeko organoak, informazio-batzordeak, tokiko gobernurako batzordeak, osoko bilkurak, foroak, bilerak...
- Diruz lagundutako langileekin egindako lanen plangintzan, zuzendaritzan eta koordinazioan laguntzea.

2. KONTRATATU BEHARRAREN JUSTIFIKAZIOA

Zeanuriko Udalak hirigintzaren arloan duen eskumena dela eta, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2 artikuluaren a) idatz-zatiaren arabera, zerbitzua behar bezala garatzeko arkitekto aholkulari bat kontratatu behar da

3. EGIKARITZEKO EPEA

Kontratuaren iraupena urtero luzatu ahal izango da. Luzapena kontratazio-organoak erabakiko du, eta nahitaezkoa izango da enpresaburuarentzat, baldin eta kontratuaren iraupen-epea amaitu baino gutxienez bi hilabete lehenago jakinarazten bada, eta gehienez 2 urterako (gehieneko iraupena, 4 urteko luzapenak barne).

Hala ere, kontratu baten epemugan kontratistak egin beharreko prestazioaren jarraipena bermatzen duen kontratu berria formalizatu ez bada, kontratazio-organoarentzat aurreikusi ezin diren gertaeren ondorioz esleipen-prozeduran gertatu diren gorabeheren ondorioz, eta interes publikoko arrazoiak badaude prestazioa ez eteteko, jatorrizko kontratua luzatu ahal izango da zerbitzu-kontratu berria gauzatzen hasi arte edo Zeanuriko Udalak zuzenean bere gain hartzen duen arte, baldin eta kontratua gehienez ere bederatzi hilabetez aldatzen bada.

4. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

1.- Hauxe izango da lizitazioaren oinarrizko aurrekontua: 24.700 euro/urtero , gehi BEZ.. Aurrekontua hobetu dezakete lizitatzaileek.

2.- Kontratuaren balio zenbatetsia 98.800euro da, BEZa aparte.

5. FINANTZAKETA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko, aurreikusita dago urteko aurrekontuaren konturako finantzaketa, .151022707. aurrekontu-aplikazioan.

Halaber, aurrekontuen arloko eskumena duen organoak behar diren kredituak ezarriko ditu kontratu honek eragingo dien hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan.

6. ORDAINKETA-ARAUBIDEA

Dagokion faktura aurkeztu eta onesten denean ordainduko da kontratuaren prezioa, honela: faktura aurkeztu eta gero.

SPKLren hogeita hamabigarren xedapen gehigarriaren arabera, eta dagozkion fakturetan jasotzeko, honako hau adierazi behar Idazkaritza-Kontuhartzailetza da kontabilitate publikoaren arloan eskumena duen organoa eta Udalbatza da kontratazio-organoa.

7. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Espedientean egiaztatzen den bezala, kontratu honen prezioak berrikusi ahal izango dira, honako hauetan xedatutakoarekin bat etorriz: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 103.2 artikulua, martxoaren 30eko 2/2015 Legearen (Espainiako ekonomiaren desindexazioarena) 4. eta 5 artikuluetan aipatutako errege-dekretua, eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren 104.etik 106.era bitarteko artikuluak.

Formula hau aplikatu beharko da prezioak berrikustean: Euskal Autonomia Erkidegoko aurreko urteko KPIa.

8. BERMEAK

Kontratuaren adjudikaziodunak behin betiko bermea jarri behar du, bere gain hartutako betebeharrak beteko dituela bermatzeko. Bermearen zenbatekoa adjudikazioaren zenbatekoaren % 5 izango da, BEZa aparte.

Berme hori jartzeko epea 17. klausulan aipatutako eskakizunean adierazitakoa izango da. SPKLren 108. artikuluan ezarritako bitartekoetatik edozein erabiliz jarri ahal izango da bermea. Bitarteko elektroniko, informatiko edo telematikoak erabil daitezke bermea jarri dela egiaztatzeko. Baldintza hori lizitatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik betetzen ez bada, administrazioak ez du adjudikazioa beraren alde emango.

Bermea itzultzeko edo ezeztatzeko, osorik edo hala badagokio partez, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 111. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da, bermealdia amaitu eta adjudikaziodunak kontratuan ezarritako betebehar guztiak bete ondoren.

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

9. ADJUDIKAZIO-PROZEDURA

Kontratu hau prozedura irekiaren bidez adjudikatuko da, SPKLn ezarritakoari jarraituz; lege horretan eta bera garatzeko arauetan ezarritako jardunei jarraituko zaie adjudikazioa izapidetzean.

10. LIZITAZIO ELEKTRONIKOA

Lizitazio hau bitarteko elektronikoz izapidetuko da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoari jarraituz. Horrenbestez, udalaren eta lizitatzaileen arteko harremana ere bide horien bitartez egingo da.

11. JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK

Espediente honi lotutako jakinarazpen eta komunikazio guztiak bitarteko elektronikoz egingo dira, honako prozesu honi jarraituz:

1) **Hartzailearen esku jartzea**.
2) **Jakinarazpenaren edo komunikazioaren edukiak eskuratzeko bidea**.

Epeak egun honetatik hasiko dira zenbatzen: jakinarazpena egiten den egunetik (jakinaraztearen xede den egintza egun berean argitaratzen bada kontratatzaile-profilean), edo jakinarazpena jasotzen den egunetik (egintza ez bada egun berean argitaratzen kontratatzaile-profilean).

Jakinarazpena eskuragarri jarri eta hamar egun naturalen epean hartzaileak onartu ez badu edo uko egin badio, iraungitzat joko da, eta betetzat joko da jakinarazteko izapidea.

12. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Kontratazio-prozedura honetan parte hartu ahal izango dute gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisiko zein juridikoek, baldin eta ekonomia- eta finantza-kaudimena eta kaudimen teknikoa edo profesionala badituzte eta ez badaude sartuta SPKLren 71. artikuluan kontratatzeko ezarritako debekuetako batean ere. Kaudimena 17.5 klausulan ezarritako bitartekoen bidez egiaztatuko eta ebaluatuko da.
Halaber, nork bere izenean edo baimendutako ordezkari baten bitartez har dezakete parte (ordezkariak berariazko ahalorde askietsia eduki behar du). Pertsona juridiko bateko kideren bat aritzen bada haren ordezkari, agiri bidez frogatu beharko du baduela horretarako ahalmena. Kasu batean zein bestean, ordezkariari ere eragiten diote lehen aipatutako kontratatzeko ezgaitasun horiek.

Pertsona horiek, halaber, kontratu honen xede den jarduera edo prestazioa gauzatzeko behar den enpresa- edo lanbide-gaikuntza eduki behar dute.

13. ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Eskaintzak baloratzeko eta eskaintzarik onuragarriena zehazteko, irizpide objektiboak erabiliko dira, lehiaketa esleitzeko oinarri gisa. Aurkeztutako dokumentazioa hartuko da kontuan, eta guztira 100 puntuko puntuazioa oinarri hartuta arautuko da, honako irizpide hauetan oinarrituta, garrantziaren handienetik txikienera haztatuta:

Automatikoki ebaluatzeko irizpideak (100 puntu).

- Zerbitzuaren urteko prezioa, **50 puntu** gehienez emango zaizkio eskaintzarik onenari, eta gainerako eskaintzak alderantziz proportzionalki baloratuko dira.
(Joan-etorrien gastuak izan ezik).

-Esperientzia Administrazioan: **25 puntu** gehienez: 2,5 puntu urte bakoitzeko. kontratuari atxikitako langileek Administrazioan emandako zerbitzuak baloratuko dira, egin beharreko zereginekin zerikusia duten lanak (lan-erregimena edo zerbitzuen administrazio-kontratua).

- Euskararen ezagutza: **15 puntu.** Zeanuriko Udalean zerbitzua emango duen arkitektoaren 3. hizkuntza-eskakizunaren edo EGA ziurtagiriaren bidez egiaztatu behar da.

-Aparteko zerbitzuetarako erabilera libreko eta erretena egiteko urteko ordu poltsa: **10 puntu** eskaintzarik onenarentzat eta gainontzekoa alderantziz proportzionala.
Kasu honetan, ordu osagarriak egiteak zerbitzuaren kalitatea hobetzen duela uste da, aholkularitzak egin beharreko lanek pertsona, enpresa eta erakundeekin harremanak izatea eskatzen baitute, batzuetan aholkularitzaren ohiko lan-ordutegitik kanpo. Era berean, ordu horiek zerbitzuaren kalitatea hobetzen lagundu dezakete, herritarrei arreta emateko ordu gehiago baitaude

14. KONTRATAZIO-MAHAIA

Honako kide hauek osatuko dute kontratazio-mahaia, Euskadiko Kontratatazio Plataforma publikatuta dagozanak.

- Mahaiburua:

- Kideak:
- Mahaiko idazkaria:

Mahaia tekniko aditu batez lagunduta egongo da.

15. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA ETA EZAUGARRIAK, ETA KLAUSULA-AGIRIAK ESKURATZEKO BIDEA

Lizitazio hau Udalaren kontratatzaile-profilean argitaratuko da, zeina Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Plataforman baitago.

Proposamenak bitarteko elektronikoz aurkeztu behar dira plataforma horren bidez, 20 egun naturaleko epean, argitaratzen den egunaren hurrengo egunetik aurrera, epearen azken eguneko 15:00ak baino lehen.

Honako helbide honen bidez sartu ahal izango da Udalaren kontratatzaile-profilean www.zeanuri.eus. Toki horretan bertan eskuratu ahal izango dira klausula-agiriak eta dokumentazio osagarria.

Lizitatzaileek informazio gehigarria eskatzen badute klausula-agiriei edo dokumentazio osagarriari buruz, jasotzeko ezarritako muga-eguna baino sei egun lehenago emango zaie informazio gehigarri hori beranduenez, baldin eta gutxienez proposamenak jasotzeko muga-eguna baino 12 egun lehenago egin badira eskariak.

SPKLren 136.2 eta 136.3 artikuluetan xedatutakoaren arabera, klausula-agiriei edo dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria aipatutako epeetan entregatzerik izan ez bada, edo eskaintzak egiteko aldez aurretik lanen tokian bertan bisita egin behar bada edo klausula-agiriari erantsitako dokumentazioa *in situ* kontsultatu behar bada, eskaintzak jasotzeko epea luzatu egingo da, ukitutako hautagaiek eskaintzak egiteko behar duten informazio guztia jasotzeko egokitzat jotzen den adina.

Lizitazio-prozedura honetan, ez da onartuko eskaintzarik gorago adierazitako bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu ezean. Horretarako, ezinbesteko baldintza da Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Plataformako edo Sektore Publikoko Kontratazio Plataformako erabiltzaile erregistratua izatea.

Eskaintza bateko dokumenturen bat ezin bada behar bezala ikusi, gorabehera hori jakinarazi eta gehienez 24 orduko epea izango du lizitatzaileak fitxategi akastunean zegoen dokumentua formatu digitalean aurkezteko. Geroago aurkeztutako dokumentu horrek ezin izango du aldaketarik izan eskaintzan aurkeztutako jatorrizko dokumentuaren aldean. Kontratazio-organoak ikusten badu dokumentuak aldaketaren bat izan duela, baztertu egingo da lizitatzailearen eskaintza.

Proposamenek administrazio-klausula partikularren agiri honetan ezarritakoa bete beharko dute. Proposamena aurkezteak berekin dakar lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzea klausula edo betekizun horiek, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe, eta kontratazio-mahaiari eta kontratazio-organoari baimena ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroko datuak kontsultatzeko.

Lizitatzaile bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu; dena den, aldaerak onartu ahal izango dira. Halaber, ezin izango du beste aldi baterako enpresa-elkarte baten bidez inolako proposamenik aurkeztu, baldin eta aurretik bakarka aurkeztu badu, ezta aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan egon ere. Arau horiek hautsiz gero, ez da onartuko lizitatzaile horrek izenpetutako proposamenik.

Lizitatzaileek konfidentzial izenda dezakete eskaintzak egitean berek emandako informazioaren parte bat, informazio publikoa eskuratzeari buruz indarrean dagoen legeriak xedatutakoa eta SPKLn adjudikazioaren publizitateari buruz eta hautagaiei nahiz lizitatzaileei eman behar zaien informazioari buruz dauden xedapenak gorabehera; bereziki, hori egin ahal

izango dute beren sekretu tekniko edo komertzialei eta haien alderdi konfidentzialei dagokienez. Udalak ezin izango du informazio hori zabaldu lizitatzailearen baimenik gabe.

16. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA

Lizitatzaileek hiru gutun-azal elektroniko aurkeztu beharko dituzte, lizitatzaileak edo haren ordezkariak sinatuta; klausula honetan adierazitako edukia izan beharko du bakoitzak.

«A» GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- «KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA»

Agiri hauek izango ditu gutun-azalak:

a) Posta elektronikoko helbide gaitua.

Posta elektronikoko helbide gaitu bat izendatu behar da, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera; helbide horretara igorriko dira kontratazio-espediente honetatik eratorritako jakinarazpenak.

b) Lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpena.

Adierazpen horretan, lizitatzaileak adieraziko du betetzen dituela bai administrazioarekin kontratatzeko legeak ezarritako baldintzak, bai kontratua lortzeko klausula-agiri honetan ezarritako eskakizunak, bereziki 12. eta 17.5 klausuletakoak. Kontratazio-agiri europar bakarraren (KAEB) inprimakiaren araberakoa izango da adierazpena; klausula-agiri honen I. eranskinean dauden argibideei jarraituz bete daiteke.

Dena den, prozedura ondo burutzen dela bermatzeko, kontratazio-mahaiak edo kontratazio-organoak lizitatzaileei eska diezaieke dokumentazioa aurkez dezaten kontratuaren adjudikazioduna izateko klausula-agiri honetan eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko, kontratua adjudikatu aurreko edozein unetan.

c) Aldi baterako enpresa-elkarte gisa (ABEE) aurkezten diren eragile ekonomikoen kasuan, hura osatzen duten partaideetako bakoitzak aurkeztu beharko du bere erantzukizunpeko adierazpena. Halaber, konpromisoa aurkeztu beharko dute adjudikazioa lortuz gero aldi baterako enpresa-elkartea formalki eratzeko, eta zehaztu beharko dute partaide bakoitzaren izena eta zer egoera eta zer partaidetza izango duen aldi baterako enpresa-elkartean.

d) Baldin eta, SPKLren 75. artikuluan xedatutakoaren arabera, lizitatzailea beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritzen bada, horietako bakoitzak ere aurkeztu beharko du erantzukizunpeko adierazpena.

Proposamenak aurkezteko epea amaitzean, egiaztatuko da ea betetzen diren legeak eskatutako izaeraren, gaitasunaren eta kaudimenaren betekizunak.

«B» GUTUN-AZALA:«AUTOMATIKOKI BALIOESTEKO IRIZPIDEAK»

Agiri hauek izango ditu gutun-azalak: Proposamen ekonomikoa, esperientziaren ziurtagiria, euskeraren ezagutzaren ziurtagiria, eta aparteko zerbitzuetarako erabilera libreko orduak.

.

17. AURKEZTUTAKO AGIRIAK IREKI ETA PROZESATZEA; ENPRESAK AUKERATZEA, ETA ESKAINTZAK BALIOESTEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitzen denean, honako jardun hauek egingo dira:

1. «A» GUTUN-AZALA IREKI

Mahaiak «A» gutun-azala irekiko du elektronikoki, eta hartan sartutako dokumentazioa kalifikatuko du.

SPKLren 141.2 artikulua aplikatuz, mahaiak, zuzentzeko moduko akatsak aurkitzen baditu dokumentuetan, ukitutako lizitatzaileei jakinaraziko die hori, eta hiru egun naturaleko epea emango die akatsok zuzentzeko.

Halaber, udalaren kontratatzaile-profilean eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Plataforman ere iragarriko dira lizitatzaileei jakinarazitako zuzentze-eskaerak.

2 «B» GUTUN-AZALA IREKI

«A» gutun-azaleko dokumentazioa ireki eta balioetsi ondoren, kontratazio-mahaiak «B» gutun-azala irekiko du, udalaren kontratatzaile-profilean argitaratuko den egunean eta orduan. Horri dagokionez, dokumentazio horretan akatsak edo gabeziak zuzendu behar badira, mahaiak sei egun balioduneko epea emango du, gehienez, zuzenketak egiteko, 817/2009 Errege Dekretuaren 27. artikulua analogiaz aplikatuz.

Ekitaldi horretan, jakinaraziko da zer balioespen eman zaion balio-iritzi baten araberako irizpide bakoitzari.

3 ESKAINTZAK SAILKATU

Irizpide guztiak balioetsi ondoren, aurkeztutako proposamenak puntuazio handienetik txikienera sailkatuko ditu kontratazio-mahaiak, eta, egin beharreko jarduketak egin ondoren, kontratua adjudikatzeko proposamena aurkeztuko dio kontratazio-organoari.

Kontratua adjudikatzeko proposamenak ez du inolako eskubiderik sortuko proposatutako lizitatzailearen alde; ez du eskubiderik eskuratuko administrazioaren aurrean harik eta kontratua formalizatu arte.

SPKLren 149. artikuluan xedatutakoaren arabera, nabarmenki baxuegitzat jotzeko moduko eskaintzaren bat identifikatuz gero, eskaintza nabarmenki baxuegitzat jotzeko, aldez aurretik, entzun egin behar zaio eskaintza aurkeztu duen

lizitatzaileari (edo lizitatzaileei), eta dagokion zerbitzuak aholkularitza teknikoa eman beharko du.
Kasu horretan, lizitatzaileak emandako arrazoiak eta eskatutako txostenak aintzat hartuta, administrazioaren nahierara betetzeko gaitasuna dutela irizten zaien proposamenetatik ekonomikoki onuragarrien denari adjudikatzea erabakiko du kontratazio-organoak.

Kontratazio-organoak uste badu eskaintza ezin dela bete balio nabarmenki baxuegiak izateagatik, sailkapenetik baztertuko du, eta eskaintzarik onenari adjudikatzea erabakiko du, proposamenak sailkatu diren ordenari jarraituz.

Egindako jardun guztien berri emango da espedientean, eta aktetan jaso, nahitaez idatzi beharko baitira aktak.

4 LEHEN SAILKATUARI ERREKERIMENDUA EGIN

Aurreko jardunak egin ostean, kontratazio-zerbitzuek errekerimendua egingo diote lehen sailkatuari ekintza hauek egiteko edo dokumentu hauek aurkezteko, hamar egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera:

a) Parte-hartzailearen edo haren ordezkariaren nortasun-agiri nazionalaren edo pasaportearen fotokopia. Horrez gain, beste pertsona edo entitate baten izenean jardunez gero, notario-ahalordea, zeina udalak askietsiko baitu.

b) Lizitatzailea pertsona juridikoa denean, eraketa- edo aldaketa-eskritura beharko da, kasuan kasukoa, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatuta, eta identifikazio fiskaleko zenbakia, aplikagarri zaion merkataritza-legeriaren arabera inskribatuta egotea eska daitekeenean. Hala ez bada, jarduteko gaitasuna frogatzeko honako hauetako bat aurkeztu behar da: dagokion erregistro ofizialean inskribatutako eraketa-eskritura edo -dokumentua, estatutuen agiria edo sortze-egintzaren agiria, zeinean zehaztuta egon behar baita zer arauk erregulatzen duten beraren jarduera.

Enpresariak espainiarrak ez badira baina bai Europar Batasuneko kide den beste estatu bateko herritarrak, dagokien erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute, egoitza daukaten estatuko legerian ezarritakoaren arabera, edo erantzukizunpeko adierazpen baten edo egiaztagiri baten bidez, aplikatzekoak diren Europar Batasuneko xedapenei jarraituz.

Atzerriko gainerako enpresaburuek, jarduteko gaitasuna dutela egiaztatzeko, Espainiak dagokion estatuan duen Diplomazia Misio Iraunkorraren txostena aurkeztu beharko dute, edo enpresaren egoitza dagoen lurraldeko Kontsuletxeko Bulegoaren txostena.

c) Egiaztatu behar du alta emanda dagoela jarduera ekonomikoen gaineko zergan, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, alta-agiria aurkeztuz, urteko ekitaldikoa bada, edo ekonomia-jardueren gaineko zergaren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Betiere, zerga horren matrikulan bajarik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du.

d) Lizitatzailearen kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionalaren egiaztagiriak, SPKLren 87. Artikulu eta hurrengoetan et ezarritako bitartekoen bidez. Aipatutako bitartekoei dagokienez, enpresek, kontrau honetarako, gutxieneko kaudimen-eskakizun hauek bete beharko dituzte:

1.Enpresaburuaren ekonomia- eta finantza-kaudimena honako bide hauetakoren baten bidez egiaztatu beharko da:
- Urteko negozio-bolumena, edo urteko negozio-bolumena, kontratuari dagokion eremuan, azken hiru ekitaldien barruan ekitaldi hoberenari dagokiona, enpresaburua eratzeko edo jarduerak hasteko daten eta eskaintzak aurkezteko daten arabera, euro edo gehiagoko zenbatekoan.
- Lanbide-arriskuengatiko erantzukizun zibileko asegurua, kontratuaren balio zenbatetsiaren baliokidea edo handiagoa,

2.Enpresaburuaren kaudimen teknikoa honako bide hauen bidez egiaztatu beharko da:

a) Kontratuaren xedea osatzen duten zerbitzu edo lan nagusien zerrenda, izaera berekoa edo antzekoa, gehienez ere azken hiru urteetan. Zerrenda horretan, honako hauek adieraziko dira: zenbatekoa, data eta organo eskudunak emandako edo ikus-onetsitako hartzailea, publikoa edo pribatua, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean; hartzailea subjektu pribatu bat denean, hark emandako ziurtagiri baten bidez, edo, enpresaburuaren ziurtagiririk ezean, enpresaburuaren ziurtagiri baten bidez.
Sortu barri diren enpresantzat, SPKL aplikatuko da, 90. 4 ataña-

b) Enpresariaren eta enpresako zuzendarien eta, batez ere, kontratua betearaziko duten langileen titulazio akademiko eta profesionalak. Izan ere, kontratuaren betearazpenera atxikitako pertsonek honako titulazio hau eduki beharko dute gutxienez:

- Arkitekturako Goi Titulua.

c)3. hizkuntza-eskakizunaren edo “Euskararen Gaitasun Agiria” ziurtagiriaren bidez egiaztatutako euskararen ezagutza, Zeanuriko udalean zerbitzuak emango dituen arkitektoarena.

Proposamenek, gainera, kontratua gauzatzeko ardura duten langileen izenak eta lanbide-kualifikazioa zehaztu beharko dituzte. Horri dagokionez, adierazten da esleipendunak ezin izango dituela pertsona horiek ordezkatu administrazio honen aldez aurreko baimenik gabe. hori zuzenean egiaztatuko da, nahiz eta lizitatzaileek Erregistro Ofizialen baten ziurtagiria edo klausula honetan bertan aipatutako Erkidegoko ziurtagiria aurkeztu.
.

e) Lizitazio batean hainbat enpresaburuk aldi baterako enpresa-elkartea eratuta parte hartzen badute, elkartea osatzen duen bakoitzak egiaztatu beharko du gaitasuna eta kaudimena dituela, aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera. Halaber, proposamenean zehaztuko dute kontratuaren zer zati egingo lukeen aldi baterako enpresa-elkarteko kide bakoitzak, kide guztien gaitasun- eta kaudimen-eskakizunak egiaztatzeko.

f)Atzerriko enpresek adierazpen bat aurkeztu behar dute, zeinaren bidez onartzen baitute ordena guztietako Espainiako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzea, zuzenean zein zeharka kontratutik sortzen den gorabehera orotarako, eta uko egiten baitiote lizitatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzioari.

g)Zergen eta Gizarte Segurantzaren inguruko betebeharrak bete dituela egiaztatu beharko du, edo baimena eman kontratazio-organoari informazio hori zuzenean jasotzeko.

h) Behin betiko bermea eratu izanaren egiaztagiria.

Aurreko a), b), eta d) letretan adierazitako baldintzak Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroaren edo Estatuko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialaren ziurtagirien bidez froga daitezke, edo Europar Batasunaren ziurtagiri baten bidez, SPKLren 96. eta 97. artikuluetan ezarritakoari jarraituz. Apartatu honetan aipatutako ziurtagiriak elektronikoki eman daitezke.

Eskatutako agiriak adierazitako epe horretan aurkezten ez badira, lizitatzaileak eskaintza kendu duela joko da. Hori gertatzen bada, puntuazioaren arabera antolatutako eskaintzen zerrenda hartu eta haren ondorengo lizitatzaileari eskatuko zaio lehen aipatutako agiri horiek aurkez ditzala.

Apartatu honetan aipatutako errekerimenduaren ondoren aurkeztutako dokumentazioak zuzentzeko moduko akatsik baldin badu, hiru egun naturaleko epea emango zaio hura zuzentzeko; lizitatzaileari zuzenean jakinaraziko zaio, eta udalaren kontratatzaile-profilean ere iragarriko da.

18. ADJUDIKAZIOA ETA FORMALIZATZEA

Kontratazio-organoak eskaintzarik onena egiten duen lizitatzaileari adjudikazioa ematea ebatziko du, lehen sailkatuari eskatutako dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun balioduneko epean, SPKLren 150.3 artikuluak xedatutakoari jarraituz.

Lizitatzaile guztiei emango zaie adjudikazioaren berri, eta erakundearen kontratatzaile-profilean argitaratuko da.

Lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokituko den administrazio-dokumentu baten bidez formalizatuta burutuko da kontratua; dokumentu hori nahikoa titulu izango da edozein erregistro publikotan aurkezteko. Nolanahi ere, kontratua eskritura publiko bihurtzeko eska dezake kontratistak, eta, orduan, bere kontura izango dira eskritura publikoak egiteak sortutako gastuak.

19. KONTRATUA EZ EGITEKO ERABAKIA ETA PROZEDURAN ATZERA EGITEA

SPKLren 152. artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratazio-organoak kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia hartu ahal izango du, behar bezala

justifikatutako interes publikoko arrazoiak direla eta. Halaber, prozeduran atzera egin ahal izango du baldin eta zuzendu ezin daitekeen arau-hausteren bat atzematen badu kontratua prestatzeko arauei edo adjudikazio-prozedura erregulatzen duten arauei dagokienez. Kontratua ez egiteko erabakia hartzekotan edo prozeduran atzera egitekotan, kontratua formalizatu aurretik egin behar da, betiere aipatutako artikuluan ezarritako betekizunen arabera.

III. KONTRATUA EGIKARITZEA

20. KONTRATUA EGIKARITZEAREN ARAUBIDE OROKORRA

Kontratistaren gain eta galorde joango da kontratuaren egikaritzea, agiri honetan jasotako klausulei eta, hala badagokio, espedienteari erantsitako zehaztapen teknikoei jarraituz. Administrazioak lanak zuzendu, ikuskatu eta kontrolatuko ditu, eta ahalmen horiek idatziz zein ahoz erabili ahal izango ditu.

Kontratistari edo haren agindupeko pertsonaren bati egotz dakiokeen egintza edo ez-egite baten ondorioz arriskuan jartzen bada kontratua egokiro egikaritzea, administrazioak agindu ahal izango du beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela kontratuaren egikaritze egokia lortzeko edo berrezartzeko.

SPKLren 202.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratu hau egikaritzeko honako egikaritze-baldintza berezi hauek eskatuko dira (gizartearen, lanaren, etikaren edo ingurumenaren arlokoak zein bestelakoak): gizarte ingurukoak.

Baldintza horiek funtsezko kontratu-betebeharra dira; horrenbestez, SPKLren 201 artikuluan xedatutakoaren arabera, hori ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoitzat jo ahal izango da SPKLren 211.1.f) artikuluan adierazitako ondorioetarako.

Halaber, honako betebehar hauek izango ditu kontratistak:

a) Zerbitzua hitzartutako jarraitutasunaz eskaini behar du, eta partikularrei bermatu behar die zerbitzua erabiltzeko eskubidea xedatutako baldintzen arabera, eta ezarritako ordain ekonomikoaren truke, hala badagokio.

b) Zerbitzua ondo dabilela zaintzea.

c) Zerbitzuaren funtzionamenduak eskatzen dituen eragiketek hirugarrenei eragiten dizkieten kalteak ordaindu beharko ditu, salbu eta administrazioari egotz dakizkiokeen kausek eragin badute kaltea.

d) Kontratuaren arabera entregatu behar dituen obrak eta instalazioak ondo zainduta eta ondo funtzionatzen dutela entregatu behar ditu.

Zerbitzuari atxikitako ondasunak ezin izango dira enbargatu.

Kontratistaren ez-betetze baten ondorioz zerbitzua larri nahasten bada, beste bitarteko batzuez ezin bada konpondu, eta administrazioak kontratua suntsiaraztea erabakitzen ez badu, administrazioak erabaki ahal izango du hura bahitzea edo atzematea harik eta nahasmendu hori amaitzen den arte. Nolanahi ere, benetan sortutako kalte eta galerak ordaindu beharko dizkio kontratistak administrazioari.

Administrazioak beretzat gordeko ditu zerbitzuak ondo funtzionatzea bermatzeko behar diren zaintza-ahalak.

21.- ESLEIPENDUNAREN LAN ETA GIZARTE ARLOKO BETEBEHARRAK

21.1.- Giza baliabideak.

21.1.1.- Esleipendunak lanari, gizarte-segurantzari eta laneko segurtasunari eta higieneari buruzko legeriako indarreko xedapen guztiak bete beharko ditu, eta betearazpen horren ondorioz sortutako gastu guztiak bere konturakoak izango dira. Esleipendunak betebehar horiek betetzen ez baditu, Zeanuriko Udalak ez du horren gaineko inolako erantzukizunik izango.

21.1.2.- Esleipendunak bere langileen bidez garatuko ditu kontratu honetan zehaztutako zerbitzu guztiak, eta bere konturakoa izango da behar beste langile kontratatzea bere eskaintzan azaldutako zerbitzugintza egokia dela ziurtatzeko eta une oro zerbitzua gutxienez behar diren langileekin ematen dela bermatzeko, langileen eskubide sozialak (baimenak, oporrak, lizentziak) edo bajak edonolakoak direla ere. Horretarako, hain zuzen ere, behar beste langile kontratatu beharko ditu legearen arabera dagokion modalitatean. Aldi baterako kontratazio horien ondorioz sortutako langile-gastuak ezin izango zaizkio gastu berri moduan egotzi udalari. Hori dela eta, izangaiek euren eskaintzan aurkeztutako zerbitzuko langile-kostuetan kontuan hartu beharko dira.

21.1.3.- Esleipendunak kontratu honen helburu diren prestazioak emateko aukeratutako langileek ez dute inolako lan-harremanik izango Zeanuriko Udalarekin. Langile horiek esleipendunaren ardurapean baino ez dira egongo, eta, enplegu-emaile moduan, lanari, gizarte-segurantzari eta laneko segurtasunari eta higieneari buruzko legeriako indarreko xedapen guztiak bete beharko ditu. Gainera, Zeanuriko Udalak ez du inolako erantzukizunik izango esleipendunaren eta haren langileen artean sortutako betebeharren ondorioz. Udalak ez du inolako zerikusirik edukiko esleipendunak ezarritako lan-harremanekin.

21.2.- Zerbitzuaren antolamendua.

21.2.1.- Esleipendunaren erantzukizuna izango da zerbitzua behar bezala antolatzea, kontratatutako prestazioak oso-osorik emango direla bermatzeko. Hartara, udalak ez du esleipendunak langile bakoitzarentzat hartutako erabakietan esku hartuko, une oro konprometitutako baliabideak dituela eta kontratatutako prestazio guztiak behar bezala garatzen direla ziurtatzeko ez bada.

21.2.2.- Langileak ordezkatu behar izanez gero, esleipendunak beti-beti bermatuko du ordezkoak kontratuan bertan eskatutako titulazioa edota esperientzia dituela. Horrez gain, kontratuko udal-arduradunari ere eman beharko zaio aldaketa horien guztien berri.

21.2.3.- Esleipendunak kontratua betearazteko aukeratutako langileak benetan, eraginkortasunez eta etengabe zuzendu beharko ditu, eta enplegu-emaile moduan dituen berezko eskubide eta betebehar guztiak hartu beharko ditu bere gain.

21.3.- Zigorrak eta kalte-ordainak.

21.3.1.- Klausula honetan zehaztutako betebeharrak «funtsezkoak» izango direnez, kontratua suntsiarazteko arrazoitzat hartu ahal izango dira bete ezean. Edonola ere, jarduketa isolatua izan dela eta birbideratu egin daitekeela eta kontratua suntsiaraztea kasuan kasuko zerbitzuaren interesari begira desegokia dela uste izanez gero, suntsiarazpena ekidin ahal izango da arau-hauste bakoitzean esleipenaren prezioaren %1-%5eko (BEZa barne) zigor hertsagarriak ezartzean, arau-haustearen larritasuna, berrerorketa eta fede txarra kontuan hartuta.

21.3.2.- Zigor horiek ez dute inolako zerikusirik edukiko udalari edo udalaren aurka erreklamatzeko eskubidea daukaten hirugarrenei ez-betearazpenaren ondorioz eragindako kalte-galerengatik esleipendunak udalari kalte-ordaina ordaintzeko daukan betebeharrarekin. Horrez gain, esleipenduna bera langileen legez kontrako lagapenagatik edo gizarte, lan edo zerga arloko beste edozein betebehar ez betetzeagatik kondenatua izanez gero udalak ordaindu beharreko soldatak, kotizazio sozialak edo iraizpenen kostua ere kontuan hartuko dira gutxienez. Era berean, gainkostuagatiko kalte-ordaina ere ordaindu ahal izango da, Langileen Estatutuari buruzko Legeko Testu Bateratua onartzen duen martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuko 44. artikulua ezartzean kontratura atxikitako langileak beste esleipendun bati subrogatzeko eskubidea egon badagoela ebazpen judizialaren bidez adierazten bada, udalak gainkostu hori zuzenean edo zeharka jasan behar duenean esleipendunak ezarri beharreko Hitzarmen

Kolektiboaren gainetik dauden ordainsari-gehikuntzak negoziatu dituelako langile horientzat.

21.3.3.- Kontratua ez betetzeagatik sortutako zigorrak eta kalte-ordainak ezartzeko orduan, zehapen-espediente sumarioa irekiko da.

21.4.- Fakturak ordaintzeko datuak eta eskakizunak.

21.4.1.- Fakturak bat etorri beharko dira urtarrilaren 31ko 87/2005 Errege Dekretuaren bidez aldatutako azaroaren 28ko 496/2003 Errege Dekretuan xedatutakoarekin, Administrazio Publikoetako Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorreko 7. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Batez ere, argi eta garbi adierazi beharko da lanen irismena eta epealdia zein diren.

21.4.2.- 11/2013 Legearen bidez ezarritako SPKLTBko 33. xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, honako datu hauek kontuan hartu beharko dira fakturazioari begira:

- Udal honetan kontabilitate publikoaren arloko eskumenak dituen organo administratiboa: udaleko idazkaria/kontu-hartzailea
- Kontratazio Organoa: Udalbatza.
- Fakturaren hartzailea: Zeanuriko Udala

22.- ESLEIPENDUNAREN OINARRIZKO BETEBEHARRAK

Indarreko legerian zehaztutako betebehar generikoak ez ezik, honako betebehar berezi hauek ere bete beharko ditu esleipendunak:

1. Zerbitzua orri honetan eta baldintza teknikoen orrian adierazi bezala ematea, baita Zeanuriko Udalak ondoren agindutakoaren arabera ere.Aholkularitza zerbitzua Zeanuriko Udalean bertan eman beharko da, hilean bi aldiz gitxienez. Egun bakoitzean behintzat 2 ordu egon beharko da udalean eta beti be egun horretarako programatutako dagozan .konsulta guztiak atenditzeko beharrezkoa dan denboran. Interesatuen bateri ezinezkoa egingo balitzaio udalera arkitektoa dagoen egun edo orduetan bertaratzea beste era batera konsulta egitea erreztuko liteke (telefonoz, internetez, adjudikataria izan den enpresan ematea zerbitzua…).
2. Zehaztutako helburuen araberako azpiegitura administratibo eta funtzionala edukitzea, orri honetan zehaztutako informazio eta agiri guztiak idazteko, erabiltzeko, kontrolatzeko eta interpretatzeko.
3. Enpresa esleipendunak zerga, lan, Gizarte Segurantza eta laneko arriskuen prebentzioaren arloko legeria eta sektorean edota enpresa esleipendunean ezarri beharreko hitzarmen kolektiboak zehatz-mehatz betetzea. Kontratuak dirauen bitartean, Zeanuriko Udalak betebehar horiek betetzen direla egiaztatu ahal izango du.
4. Esleipendunaren erruz zerbitzuko jarduerak pertsonei edo ondasunei edo haren ardurapeko langileei eragin ahal dizkien kalte-galeren ondorioz sortutako ondare-erantzukizuna bere gain hartzea. Horretarako, kontratuaren helburuaren arabera behar bestekoa den kalte-ordaina estaltzeko moduko aseguru-poliza sinatu eta indarrean eduki beharko du. Udalak behar besteko eskumena izango du, une oro sarien ordainketa egunean dagoela adierazten duten ordainagiriak eskatzeko.

5. Zerbitzugintza zuzenean garatzea eta, horren ondorioz, inori ez lagatzea, alokatzea edo eskualdatzea, Zeanuriko Udalaren berariazko baimenik ez badago.
6. Fakturetatik kontrataren zenbatekoaren zati proportzionala kentzea eman ez diren zerbitzuengatik, txarto eman direnengatik edo zati batez garatutakoengatik.
7. Udalak halaxe eskatuz gero, kontratatutako zerbitzugintzari buruzko agiri guztiak aurkeztea.
8. Halaxe eskatuz gero, gutxienez urtero Zeanuriko Udalari enpresari buruzko agiriak aurkeztea, lan, zerga, administrazio... arloan erabat legezkoa dela egiaztatzeko.
9. Une oro udalaren esku jartzea zerbitzugintzaren autokontrolerako zerbitzuetako emaitzak.
10. Agindutako ezohiko lanak egitea. Abian dauden zerbitzu-unitateak gehitu nahi izanez gero, zerbitzu horien kostua unean-unean indarrean dauden unitatekako prezioen arabera ordainduko zaio.
11. Enpresak eta berak enplegatutako langileek zerbitzuko erabiltzaileak errespetuz eta adeitasunez tratatzea.
12. Udalari baliabide pertsonalei, finantzarioei, kontabilitate-arlokoei... buruz eskatutako informazio guztia ematea, udalak berak kontrataren ezagutza eguneratua eduki dezan eta bere ustez egokiak diren neurriak ezarri ditzan.
13. Orri honen eta ezarri beharreko arautegiaren ondorioz zuzenean edo zeharka sortutako betebehar guztiak betetzea.

23.EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO BALDINTZAK

Kontratuak dirauen bitartean, esleipendunak bermatu egingo du berak erabilitako agiri, publizitate, material edo irudietan hizkuntzaren erabilera ez-sexista egiten dela. Beraz, ez du emakumeen bereizkeriazko irudirik edo estereotipo sexistarik erabiliko, eta honako balio hauetan oinarritutako irudia sustatuko du: berdintasuna, agerpen orekatua, aniztasuna, baterako erantzukizuna eta era guztietako genero nortasunak eta zereginak.

Esleipendunak honako lege hauetan zehaztutako printzipioak eta betebeharrak bete beharko ditu: Eusko Legebiltzarrak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18an emandako 4/2005 Legea eta Emakumeen eta Gizonen Benetako Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa.

24- ESLEIPENDUNAREN ESKUBIDEAK

a) Zerbitzurako beharrezkoak diren jabari publikoko ondasunak erabiltzea.
b) Zeanuriko Udalak esleipenaren helburu den prezioa ordaintzea, orri honetan ordainketarako zehaztutako baldintzak kontuan hartuta.

25- UDALAREN BETEBEHARRAK

a) Esleipendunari kontratuaren prezioa ordaintzea orri honetan adierazitakoaren arabera.
b) Ohiko zerbitzugintzarako beharrezkoa den babesa esleipendunaren esku jartzea eta Zeanuriko Udalak dituen baliabideen araberakoa izatea.

26.- ESLEIPENDUNAREN KONTURAKO GASTUAK ETA ZERGAK

26.1.- Kontratua gauzatzean sortutako gastu guztiak esleipendunaren konturakoak izango dira, betiere, horren eskritura publikoa egiten bada.

Gastu horiek esleipendunaren alde egindako lehen ordainketatik kenduko dira, betiere, esleipendunak kostu hori Udaleko Diruzaintzan sartu duela egiaztatzen ez badu.

26.2.- Izangaiek aurkeztutako proposamenetan nahiz esleipenaren aurrekontuan, tasa eta zerga zuzen eta zeharkako guztiak eta kontratuaren betearazpena zergapetzen duten udal-arielak hartuko dira kontuan, eta esleipendunaren konturakoak izango dira, administrazioak jasandako Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) izan ezik, aparteko kontu-sail moduan jarriko da-eta (SPKLTBko 145.5. artikulua).

Era berean, esleipendunaren proposamenean eta kontratuaren prezioan ere kontuan hartuko dira kontratua betearazteko beharrezkoak diren gastu guztiak, ustezko joan-etorriengatikoak izan ezik.

27.- ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUN ZIBILA

27.1.- Enpresa esleipendunak indarreko legerian zehaztutako behar besteko zuhurtasun guztiak hartu beharko ditu kontuan. Horrez gain, kontratuaren helburu diren elementu eta zerbitzu guztiei erreparatuta, bere zeregina garatzean udaleko ondasunei edo pertsonei eta hirugarrenei eragindako kalte-galeren erantzule bakarra ere izango da, eta erreklamatzen diren kalte-ordainak ordaindu beharko ditu. Halaber, zerbitzugintzan eta eraginpeko instalazioetan egindako egintzen erantzulea ere izango da.

27.2.- Enpresa esleipendunari eskatu ahal zaion erantzukizuna edonolakoa dela ere, egiaztatu egin beharko du erantzukizun zibil orokorreko asegurua daukala kontratatuta eta kalte-ordainaren muga lizitazio honen osagaia den kontratuaren helburuari aurre egiteko bestekoa dela.

Izangaiek aseguru hori harpidetzeko konpromisoa aurkeztu beharko dute. Aseguru-kontratu hori indarrean egon beharko da zerbitzugintza hasten denean. Hori egiaztatzeko, polizaren eta sariaren ordainagiriaren kopia erkatua aurkeztu beharko da.

28.- ESLEIPENDUNARENTZAKO ABONUAK

28.1.- Kontratuaren prezioa aurreko hilabetean egindako lanen hileko ziurtagirien bidez ordainduko da (hilabete bakoitzaren mugaegunean, esleipenaren urteko prezioaren hamabirena).

Ziurtagiri horiek esleipendunak egingo ditu, udalak izendatutako teknikariak adostu beharko ditu eta kasuan kasuko faktura eraman beharko dute atxikita.

28.2.- Indarreko arautegiaren arabera egindako fakturaren kontra ordainduko da, eta lana jasotzen duen unitateak edo, hala badagokio, kontratuko arduradun izendatutakoak adostu beharko du faktura. Zeanuriko Udalak SPKLTBko 216.4.

artikuluan zehaztutako epean ordaindu beharko du fakturen zenbatekoa, Hornitzaileentzako Ordainketak Finantzatzeko Fondoaren Eraldaketari buruzko uztailaren 14ko 13/2014 Legeko lehenengo azken xedapenean emandako testua kontuan hartuta.

Prezioa ordaintzeko orduan udala atzeratzen bada, emandako zerbitzuetako kontratuan xedatutakoarekiko adostasuna egiaztatzen duten agiriak onartu osteko hurrengo hogeita hamar eguneko epea betetzen denetik, berankortasun-interesak eta kobrantzako kostuengatiko kalte-ordaina ordaindu beharko dizkio esleipendunari, merkataritzako eragiketetako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusi bezala.

Aurreko paragrafoan aipatutako epea mugaeguneratzen denetik hasita, ordainketa lau urtetik gorako epean atzeratzen bada, esleipendunak kontratuaren betearazpena eten ahal izango du. Dena dela, etendura horren ondorioz sortu daitezkeen eskubideak aitortzeko asmoz, Zeanuriko Udalari hilabete lehenago jakinarazi beharko dio SPKLTBn adierazitako baldintzetan.

Klausula honetako lehenengo paragrafoan aitatutako epea mugaeguneratzen denetik hasita, udala zortzitik gora hilabetez atzeratzen bada, kontratua suntsiarazteko eta horren ondorioz jasan dituen kalteen ordaina jasotzeko eskubidea ere izango du esleipendunak.

28.3.- Legearen arabera zehaztutako edozein sistemaren bitartez, esleipendunak hirugarrenari laga ahal izango dio kontratuaren prezioa kobratzeko daukan eskubidea. Hala ere, lagapen hori eraginkorra izan dadin eta udalak lagapen-hartzailearen aldeko ordainketa-agindua eman dezan, azken horri modu sinesgarrian eman beharko zaio lagapenari buruzko erabakiaren berri, SPKLTBko 218. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta.

29.- KONTRATUAREN HELBURUAREN BETEARAZPEN AKASTUNA EDO EZ-BETEARAZPEN PARTZIALA

29.1.- Esleipendunak kontratuaren helburua behar bezala garatzen ez badu edo kontratuaren betearazpenari begira behar besteko baliabide pertsonal edo materialak erabiltzeko konpromisoa betetzen ez badu, Kontratazio Organoak kontratua suntsitu eta eratutako bermea bera ere konfiskatu ahal izango du arau-haustea larria edo oso larria denean. Bestela, ez-betearazpenaren larritasunaren araberako zigor ekonomikoa ere ezarri ahal izango dio esleipendunari, eta kontratuaren aurrekontuaren %10ekoa ere izan ahalko da SPKLTBko 212. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta.

29.2.- Udaleko zerbitzu teknikoek kalteak, galerak eta ez-betearazpenak balioetsi beharko dituzte, eta, horretarako, ezarri beharreko arautegian xedatutako bermeak hartu beharko dituzte kontuan honako honexen arabera:

Kontratua betetzeko orduan, esleipendunak derrigorrean eta zehatz-mehatz bete beharko du prozedura honetako baldintzen orrietan eta onartutako eskaintzan xedatutakoa eta esleitutako zerbitzuak hobeto egiteko asmoz udalak berak agindutakoa.

29.3.- Esleipendunaren arau-hausteak arinak, larriak edo oso larriak izan ahalko dira, eta honako idatz-zati hauetan xedatutakoaren arabera zigortuko dira:

29.3.1.- Arau-hauste arinak.

Honako hauexek izango dira arau-hauste arinak:

1) Honako arlo hauetako zerbitzugintza behin eta berriro behar bezala ez garatzea:
- Zerbitzuen kalitatea, baliabide urriak eta materialaren egoera zein artapena.
- Lanak betearazteko erritmoa.
- Eguneroko azalpenetako edo beste edozein zereginetako arduraduna ez agertzea edo 24 ordutik gorako atzerapena edukitzea.
- Zuzendaritzarako, ikuskapenerako eta kontrolerako dituen eskumenen esparruan, udal honek agindutakoa ez betetzea edo atzeratzea.

2) Aurkezpen txarragatik eta egoeragatik zerbitzugintzaz arduratzen den langilerik ez egotea edo nahikoak ez izatea, betiere, esleipendunak gabezia horiek 24 orduko epean zuzentzen ez baditu antzemandako gabeziari buruzko aurretiazko jakinarazpena egin gabe.

3) Udal honi zerbitzugintzari buruz emandako informazioa faltsua edo okerra izatea edo informazio hori ez ematea, hilabetean (1) BITAN (2) baino gehiagotan gertatzen denean.

4) Orri honetan aurreikusitako betebeharrak edo lizitaziorako eskaintzan onartutako konpromisoak ez betetzea, betiere, hurrengo epigrafeetan tipifikatuta ez badaude.

29.3.2.- Arau-hauste larriak.

Honako hauexek izango dira arau-hauste larriak:

1) Zerbitzugintza behin eta berriro behar bezala ez garatzea, urte naturalean HIRUTAN (3) baino gehiagotan zigortu denean.

2) Esleipendunak edo berak enplegatutako langileek zerbitzuko erabiltzaileen edo partikularren edozein ordainsari, kanon edo mesede jasotzea.

3) Urtebetean (1) HIRU (3) arau-hauste arin behin eta berriro egitea, betiere, aurreko idatz-zatietan aipatzen ez badira eta, udalaren ustez, izaera hori eduki behar badute, udaleko zerbitzu teknikoek, udaltzainek edo partikularrek aurkeztutako salaketen ondorioz.

4) Udalari zerbitzuak ikuskatzeko beharrezkoak diren agiriak, materialak edo langileak edo, oro har, edozein informazio ez eskaintzea, lehendik zeuden datuei edo zerbitzuari buruz lortu beharreko datuei buruzko estatistikak badira ere.

5) Hilabetean (1) BITAN (2) baino gehiagotan esanekoa ez egitea edo udalak arlo berean agindutakoa ez betetzea.

6) Esleipendunak baldintzen orrietan edo esleitutako eskaintzan adierazitakoa ez betetzea, haien irismen edo garrantzi handiagatik arau-hauste arintzat hartu ezin direnean edo zerbitzuetako erabiltzaileentzat arriskutsuak direnean, nahiz eta haien izaeragatik arau-hauste arin moduan berariaz tipifikatuta egon, hemen azaldutako inguruabar astungarriak agertzen ez badira.

7) Herritarrak, udal-teknikariak eta agintaritzako agenteak ez errespetatzea.

29.3.3.- Oso arau-hauste larriak.

Honako hauexek oso arau-hauste larriak izango dira:

1) Zerbitzugintzari kontratuan zehaztutako epean hasiera ez ematea.

2) Kontratatutako zerbitzua geldiaraztea edo oso-osorik ez ematea, betiere, ezinbestean gertatzen ez bada.

3) Hilabetean (1) BI (2) arau-hauste larri behin eta berriro egitea.

4) Zerbitzugintzari buruzko jarraibideak errepikatu gabe, esanekoa ez egitea, probidentziaren bidez edo indar lotesle bereko ebazpen ofizialaren bidez ematen direnean.

5) Langileen Gizarte Segurantzaren ordainketa eta Ogasun Publikoari egin beharreko ordainketak egunean ez edukitzea.

29.4.- Zigorrak.

Udalak zerbitzua ikuskatzeko eta fiskalizatzeko eskumenak izango ditu, eta, bere ahalaren arabera, zerbitzuko enpresa esleipenduna zehatu ahal izango du horretarako irekitako espedienteko izapideen bitartez eta enpresari berari entzun ondoren. Hona hemen zer mailatan aldatu ahal izango den arau-hauste bakoitzerako ezarritako zigorren zenbatekoa:

- Arau-hauste arinak: 600,00-1.800,00 euroko isuna.
- Arau-hauste larriak: 1.801,00-3.000,00 euroko isuna.
- Oso arau-hauste larriak: 3.001,00-20.000,00 euroko isuna. Era berean, kontratua suntsitu, fidantza galdu eta ebazpenaren ondorioz sortutako kalte-galerak ere ordaindu ahal izango dira.

Zigor horien zenbatekoak 2015. urtean ezarriko dira, eta, berariazko ebazpenik hartu gabe, urtero eguneratuko dira Euskadiko Autonomia Erkidegoan erreferentziatzat hartutako KPIren urteko gehikuntzaren arabera.

Zigorren zenbatekoak ez du inolako zerikusirik edukiko honako hauexen ondorioz egindako kenkariekin: eman ez diren zerbitzuak, ezarri ez diren baliabideak, behar besteko kalitateaz eman ez diren zerbitzuak eta beste batzuk.

Zigortzat hartu gabe udalak egindako ohartarazpenak eta zigorrak jendaurrean iragarri ahal izango dira udalaren ustez egokiak diren sistemen bitartez.

Edozein zigor ezarrita ere, ez du esan nahi esleipendunak gabezia zuzentzeko edo zigorra sorrarazi zuen prestazioa garatzeko betebeharra bete beharko ez duenik. Horrez gain, zerbitzua betetzeko ere eskatu ahal izango zaio indarreko arautegian nahitaezko betearazpenerako aurreikusitako edozein sistemaren bitartez. Bestetik, arau-hausteak bere horretan iraunez gero, orri honetan xedatutakoaren araberako zigorrak ere ezarri ahal izango dira behin eta berriro.

29.5.- Bere erruagatik esleipendunak kontratuan zehaztutako prestazioen zati bat betearazi ez duenean, Kontratazio Organoak bereizgabe aukeratu ahal izango du kontratua suntsiaraztea edo aurreko klausulan zehaztutako zigorrak ezartzea.

V. KONTRATUAREN ALDAKETA ETA ETENDURA

30.- KONTRATUAREN ALDAKETA

Kontratua indarrean dagoenean, herri-intereserako arrazoiak kontuan hartuta, Kontratazio Organoak aldaketak egin ahal izango ditu bertan, I. liburuko V. tituluan aurreikusitako kasuetan eta moduan eta SPKLTBko 211. artikuluan araututako prozeduraren arabera. Horrez gain, behar bezala ere justifikatu beharko du espedientean.

Bere araubideari dagokionez, SPKLTBko 106., 107., 108., 210., 219. eta 305. artikuluetan xedatutakoa hartu beharko da kontuan.

31.- KONTRATUAREN HELBURU DIREN LANEN ETENDURA

Kontratazio Organoak esleipendunaren zerbitzugintza eten ahal izango du zenbait gunetan, herri-interesean eragina duten arrazoien arabera egokia denean (esate baterako, obrak...). Halakoetan, jardun partzialik gabeko epealdiak ez du kontratuaren epea etengo, eta ez du esleipendunaren aldeko kalte-ordainerako eskubiderik sorraraziko.

VI. KONTRATUAREN AMAIERA

32.- KONTRATUAREN BETEARAZPENA, SUNTSIARAZPENA ETA AMAIERA

34.1.- Esleipendunak kontratua beteko du, helburua oso-osorik lortu duenean, orri honetan nahiz zehaztapen teknikoen orrian xedatutakoa eta administrazioaren jarraibideak kontuan hartuta.

34.2.- Betearazpenaren suposamenduetan ez ezik, SPKLTBko 223. eta 308. artikuluetan aurreikusitako arrazoietako bat gertatzeagatik suntsiarazten denean ere amaituko

da kontratua. Hori dela eta, SPKLTBko 224. eta 309. artikuluetan aurreikusitako ondorioak sortuko dira.

34.3.- Zerbitzuetako kontratuak amaitzen direnean, kontratuaren helburu diren lanen egileak ez dira inolaz ere administrazio kontratugileko langile bihurtuko (SPKLTBko 301.4. artikulua).

33.- BERMEAREN EPEA

Kontratuaren ezaugarriak kontuan hartuta, ez da bermearen eperik egongo, SPKLTBko 222.3. artikuluan xedatutakoaren arabera.

34.- BEHIN BETIKO BERMEAREN ITZULKETA EDO KITAPENA

Esleipendunak kontratuaren ondorioz sortutako betebeharrak betetakoan, behin betiko bermean egotzi beharreko erantzukizunik ez badago, berme hori itzultzeko edo kitatzeko erabakia hartuko da.

35.- NORBERAREN DATUEN BABESA

Norberaren Datuen Babesari buruzko 15/1999 Lege Organikoan eta Titularitate Publikoko Datu Pertsonalen Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Agentziaren Sorrerari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean xedatutakoa kontuan hartuta, Zeanuriko Udalak izangaiari jakinaraziko dio haren datu pertsonalak bere ardurapeko fitxategietan gordeko dituela, prozedura honetan parte hartzeko beharrezkoak diren agiriak izapidetu ahal izateko. Kontratatutako hornitzaileen datuak tratatuko dira, bi alderdien arteko harreman komertzialeko administrazio, zerga eta kontabilitate arloko kudeaketa garatzeko. Indarreko legerian zehaztutako baldintzetan, interesdunek datu horiek eskuratzeko, ezeztatzeko eta zuzentzeko eskubideak erabili ahal izango dituzte, eta, horretarako, Zeanuriko Udalera jo besterik ez dute: San Isidro 10, 48144 (Bizkaia).

36.- JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratua interpretatzean, betetzean eta egikaritzean sortzen diren gorabehera guztiak Bizkaian jurisdikzioa duten auzitegiek ebatziko dituzte, alderdi kontratugileek haren eskumenari men egingo diote eta administrazioarekiko auzi-arlokoa izango da jurisdikzio-ordena eskuduna.

Zeanurin, 2021eko urriaren 25ean

.I ERANSKINA. KONTRATATZEKO BALDINTZAK BETETZEARI BURUZKO ADIERAZPEN-EREDUA

..... jaunak/andreak (helbidea:..... PK, NAN:....., telefonoa:....., helbide elektronikoa:.....), bere gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa duela, bere izenean (edo..... ordezkaritzan, helbidea:....., PK:....., telefonoa:....., eta NAN edo IFZ:....., pertsona fisikoa edo juridikoa den kontuan hartuta,..... zenbakiarekin),.....

AITORTZEN DUT

I. Aipatutako sozietatea, haren administratzaileak eta legezko ordezkariak, bai eta sinatzailea ere, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan adierazitako kontratatzeko debeku- eta bateraezintasun-kausetan sartuta ez egotea.

II. Sozietate horrek egunean dituela indarreko xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

III. Aipatutako sozietatea Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan dagokion epigrafean alta emanda dagoela.

IV. Sozietate horrek ez duela zerga-zorrik administrazio kontratatzailearekin ordaintzeko betearazpen-aldian, edo bermatuta dituela.

V. Aipatutako sozietateak betetzen dituela berariazko klausula administratiboen pleguan kontratu hau eskuratzeko ezarritako baldintza guzti-guztiak, eta, bereziki, 12. eta 17. klausuletan ezarritakoak.

..... (e) n, 20..... (e) ko..... aren..... (e) (a) n.

Sinadura

II. ERANSKINA

PROPOSAMEN EKONOMIKORAKO EREDUA

_____ jaun/andreak, _____ NAN zenbakidunak, bere izenean eta _____ IFK zenbakidun _____(e)ko ordezkari moduan, jakinarazpenetarako helbidea _____(e)ko _____ kaleko _____. zenbakian daukanak, "Zeanuriko Udalerako Arkitekto Aholkulariaren Zerbitzuen Errentamendua" kontratuaren lizitaziorako gonbidapena jaso du, eta badaki zein diren klausula administratiboen eta zehaztapen tekniko partikularren orrietan zehaztutako baldintzak, eskakizunak eta betebeharrak. Izan ere, adierazi egiten du eduki hori ezagutu eta oso-osorik onartzen duela inolako salbuespen eta erreserbarik gabe. Era berean, jakin ere badaki zer betebehar dituen enpleguaren babesaren, lan-baldintzen, laneko arriskuen prebentzioaren eta ingurumenaren babesaren arloan. Hori guztiori kontuan hartuta, behar besteko konpromisoa hartzen du kontratua honako baldintza hauetan bere kontura betearazteko:

.- Zerbitzugintzaren prezioa:
Urteko zenbatekoa.-
(letraz)……euro.

- (zenbakiz) …….euro.
- + (%21eko BEZ) ……euro.